

Israelen errebisionismoa

Mohammed al Durak hamabi urte besterik ez zuen 2000. urteko irailaren 30ean, Bigarren Intifada hasi eta ordu gutxira, hil zutenean. Umearen anonimosasuna hautsi egin zen France2 telebista kateak haren hilketaren irudiak zabaltu zituenean.

Ezagunak dira oso: *Mohamed al Dura* eta bere aita Jamal, balaz jositako horma batekin bat eginda, Israelgo Armadaren eta gerrillari palestinarren arteko suan; aita oihuka, sua eten dezaten erregutuz; bat-batean, haurra lurtean hilotz; aita, larri zaurituta, konbultsio batean. Bazterrak inarrosi zituzten irudiok, Israel munduaren aurtean, Palestinan egiten ari dena ezin ezkutatu.

Joseph Coebbls berpiztu ogin da, ordea. Israelgo lehen ministro Ehud Olmert-en Pren-

tsa kabineteko buruak, itxura batean Gobernuaren bizkarrean baina Gobernutako aholkulari juridikoan baimenarekin, 2000. urteko irail hartako hilketak «muntaiak» izan zela dio. Israelgo Armadako irratiak ere «fisika aditu» baten hitzak haizatu ditu: Mohamed eta Jamal al Dura jo zituzten tiroak gerrillari palestinarrenak zirela; orduan hamabi urte zituen umea bizirik dagoela eta Gazan bizi dela.

Holokautoaren negazionistek egiten dituen errebisionismo bera aplikatzen ari direla, alegia.

Intifadaren ikur bihurtu zen *Al Dura*. Eta, ikur denez, eraitsi egin nahi du Israeliek, nahiz eta horretarako gezur bat mila aldiz errepikatu behar izan.

Dena ukatu dieten palestinarrek, ordea, ikurretan dira aberats: Israeliek isturazaz dien odola, hil dizkien haurrak... mila ume eta nerabe mendea hasi zenetik.

Saiatu saiaturko dira, baina nekez ezabatuko dute Mohamed al Dura horman iltzatua agertu zenekoa. Eta eragotzi egin behar da, gainera.

HIZ
PI
deak

Kokdo Aldabe
kaldabe@berria.info



Hitz beste

Angel Lertxundi

Burokrazia

Harrigarria da gure ahalmen ase ezina burokrazia etengabe gihentzeko». Esaldia Euskal Herriko Unibertsitateko errektore jaunak esana da. Zintzotasuna eskertzen zaio. Eskertzen zaio diagnosisaren zorrozatasuna ere.

Desmunta dezagun esaldia piezak pieza.
Harrigarria da: edo, beste modu batean esateko, normaltasun guztien gainetik dago. *Gure:* ahalmena dugu, gure ahalmenak eraiki du sistema (oso denbora laburrean eraiki ere!), ezagutzen genituen sistema txarrenak imitatuz. *Ahalmena* dugu, boterea dugu. *Ase ezina da:* beti mami eta bazka gehiago behar du, ahalmenaren apetituak ez du aserik. Ahalmen ase ezin horrek *burokrazia* (funtzionario-aparatua) *etengabe* (otordu arteko atsedetik gabe) *gizentzen* du: burokra-
ren kopurua gehitzen doan aldi berean burokraziaren presio-indarra indartzen ari da.

Okerrera: inork ez dakiela nola gelditu eta kontrolatu administrazioaren sektore guzti-guztietako bulimia hori.

Montxo



Konstituzioaren dantza

Jose Luis Alvarez Enparantza,
Txillardi

1839 - 2007.

168 urte joan dira Bergarako Berekako famatutik honaino.

Hots, badirudi 168 egun ere ez direla pasa!

Hona hemen (on da egun haue-
tan gogoraztea) «Zazpi Urteetako»
karlistada odoltsuaren amaieran,
Ezpartero jeneralak militariki lor-
tutako garaipenaren bitartez, Hego
Euskal Herrian inposatu zuena:

«Art.1 - Se confirman los fueros
de las Provincias Vascongadas y
Navarra, sin perjuicio de la unidad
constitucional de la Monarquía.

Art.2 - El Gobierno, tan pronto
como la oportunidad lo permita, y
oyendo antes a las Provincias Vas-
congadas y a Navarra, propondrá a
las Cortes la modificación indis-
pensable que en los mencionados

*fueros reclame el interés de las mis-
mas, conciliado con el general de la
Nación y la Constitución de la Mo-
narquía».*

Kontutan har Hego Euskal Her-
ria alpatu zela behin eta berriz
(«las Provincias Vascongadas y
Navarra»). Eta Albacete, Gaztela
eta Leon, Galizia, Katalunia bera,
ez direla inon agertzen.

Euskal Herriko liberalek gataz-
karen funtsa desitxuratu arren
(«gutxiengo txikerra»). Olan-
o deputatu liberalak berak 1840an
aitortu zuenez), talka nagusia Hego
Euskal Herria / Espainia zen argi-
ro.

Azkeneko afusilaketak Lizarra-
ko Pul-ko hormaren kontra gerta-
tu ziren. Ez Covadongan, Tordesi-
llas edo Ecijan.

Hots, egun hauetantxe, eta Iba-
rretxeren bigarren Planak harro-
turik, zer entzun dugu Madrile al-
detik? Hona hemen hitzez hitz.

«No se hará nada que no respete
La Constitución en su letra y en su

espíritu». (Jose Luis Rodríguez Za-
paterok ostiralean (IX-29) Errusla-
tik).

Eta oraindik garbikiago M.Tere-
sa Fernández de la Vega presiden-
te ordeak: «Constitución, Constitu-
ción, Constitución... Cualquier
plan que la ignore, no es un desafío,
sino un desvarío».

PPren iritzia bide beretik kale-
ratu du Raxoi buruzagiak: «Lo
que ha anunciado hoy el señor Iba-
rretxe es un desafío al Estado, va
contra la Constitución, es un chan-
taje».

Eta Madrileko Universidad Au-
tonomako adituek irizpide bera
eman dute: «El único referendun
vinculante en nuestro ordenamen-
to jurídico es el que culmina las re-
formas estatutarias, siempre que se
sigan los pasos previstos por la
Constitución y los Estatutos, lo que
no es el caso».

Beraz, denon gurraketa umila me-
rezi duen Totema hor dago. *La
Constitución*.

Zein konstituzio, ordea?
1839an, armen poderioz Espar-
tero jeneralak inposatu zuen
Konstituzioa izan zen.

Euskal Herriak ez du
Autodeterminazio
Eskubiderik. Nork eta
zertan funtsaturik erabaki
du ezetz? Irakurleak
badaki. Denok dakigu,
hobeki esan

2007 honetan, berriz, gure he-
rriak orain dela 28 urte onartu ez
zuen Konstituzioa da.

«Urteak joan, urteak jin»... eta
beti puntu berean.

Guk geure Konstituzioa nahi
eta behar.

Baina Madrilek ezetz: «No. La
única Constitución que merece res-
peto y pleitesía es la que aprobó en
1979 el conjunto del pueblo español,
único Sujeto de Derecho».

Kitto.
Euskal Herriar askok ez du
bere burua espainiar sentitzen,
eta arrotz zaio espainiar Konstituzioa.

Hori da kokxa.
Eta horretan sortzen den uko-ja-
rreara, hobien politiko ezin larriago-
tzat dauka Madrilek.

Euskal Herriak ez du Autodeter-
minazio Eskubiderik.

Nork eta zertan funtsaturik era-
baki du ezetz?

Irakurleak badaki.
Denok dakigu, hobeki esan.